



“MARIBEL VAQUERO EAJko Gipuzkoako zerrendaburua Kongresurako

EAJren senataria izan da Maribel Vaquero azken legealdian. Kongresurako jauzia egingo du orain, jeltzaleen Gipuzkoako zerrendaburua izango baita uztailaren 23ko hauteskundeetan. Akordioak programaren puntuak betetzeko konpromisoaren arabera izango dira, Vaqueroren esanetan.

«Ez gara inoren makulu izango, gure botoa garesti salduko dugu»

Peli LEKUONA | DONOSTIA

Espainiako senatari postuan ikusi zaitugu, orain Kongresuko hautagaia zara.

Senatuko Ganberak eman dit esperientzia Madrilgo protokoloak bertatik ezagutzeko eta, beraz, jakintza horrekin noa Kongresura. Ahal den guztia egingo dut han Euskadik ahots propioa izan dezan.

Sanchez eta Feijooen artean telebistan egindako eztabaida bezalakoek politikarekiko urruntze bat sortzen dute?

Debateek ez dute atxikimendu handirik. Bi hautagaien arteko monologo bat izan zen: gutxi entzuten zioten elkarri, bakoitzak bere mezua plazaratu nahi zuen, gogorra izan zen nire ustez, eta errespetu gutxikoa. Euskadiri buruz ez zuten hitz egin; ETArekin inguruan hitz egiteko edo biktimen erabilera maltzurra egiteko soilik erabili zen. Ez zuten hitz egin Euskadik ekonomiarako eta sozialki behar dituen neurriak buruz, eta horrek argi uzten du Euskadik ahots propioa izan dezan beste alderdi batzuek ordezkartza behar dugula, kasu honetan EAJk.

ZER-NOLA

«Esaten duguna da erabakitzeko eskubidea daukagula, eta erabakitzeko eskubide horiegia bihurtzea nahi dugu»

Kanpaina hasieran, EAJk Euskadiren aitortza nazionala proposatu zuen. Zein da hori lortzeko bidea?

Guk beti eramaten dugu Euskadiren nazio aitortza gure hauteskunde programetan, behin baino gehiagotan egin dugu saiakera, inbestidura saioko akordioan ere Sanchezi esan genion eztabaida horri heldu behar ziola. Pentsatzen dugu arazo politiko horri irtenbide bat eman behar zaiola, elkarrizketa bidez.

Katalunian egin moduan, gai horretarako mahaiaren sorrera aplikagarria da Hego Euskal Herriaren kasuan?

Hemen bizi garenok adostu beharko dugu zer-nola. Guk esaten duguna da erabakitzeko eskubidea daukagula, eta erabakitzeko eskubide horiegia bihurtzea nahi dugu.

Espainian zein European, edozein lekutan gaudela EAJk erabakitzeko eskubidearen alde egingo du, eta Euskadi nazio bat dela aitortzea eskatuko dugu.

EH Bildu eta ERCK subiranotasun prozesuak abiarazteko indarra batera egingo zutela

OROIMENA

«Oroimen politikoetan guk ez dugu onartuko inboluzio demokratikorik eta atzera pausorik»

esan zuten. Baldintza horietan EAJ barnebildu daiteke?

Lehenengo Euskadin adostu behar dugu, gure artean, eta gero hori aurrera eraman. Egia esan atentzioa ematen dit, askotan EH Bilduk ez du autogobernua defendatzen, eta gero, kanpaina bete-betean gaudela, bestelako iniziatiba batzuk dituzte. Egunero defendatu behar dugu Madrilen gure autogobernua. Han autogobernuari eraso egiten dioten zenbait neurri hartzen dira, eta EH Bildu askotan ez dago defentsa horretan.

EAJk askotan aldarrikatu du Gernikako Estatutuaren esku-duntzen transferentzia. Zer egin behar da ekartzeko?

Badirudi tantaka lortzen ditugula transferentziak, hor geratu da aldiriko trenen transferentzia, adibidez. Berriro daramagu programan, batzuk lortu ditugu, kostatu arren. Bizitzeko gutxieneko diru sarrearen transferentzia lortu genuen; handia izan da herritarrentzat dakarren onura. Egia da hamarkada asko igaro direla Gernikako Estatutu onartu zenetik, eta oraindik horretan gabiltza. PSOEk eta PPK, Estatu mailan gehien goa izanik, ez dute intentziorik transferentziak burutzeko.

Etxebizitza legearen inguruan esan duzue ez direla bertako eskumenak errespetatzen. Zein dira errespetatuko ez liratekeen legeak?

Hasteko, Euskadik etxebizitzan kompetentzia eskusiboa dauka. Lege batek etxebizitza arautu behar badu eta bakarrik dispozizio finaletan baldin badago Estatuari dagokiona arautzea, lege horrek ez dauka zentzurik. Hiri-errentamenduen legea delakoa aldatzea-

**ATERPEA, KLINIKA.
ADOPZIOA, AKOGIDA.
TRATU TXARRAK JASANDAKO
ANIMALEI ZAJNTZA.**

Kalezar Auzoa. USURBIL. 943 37 66 50
www.protectoradegipuzkoa.com
Bisitak: Astelehenetik larunbatera 10:00ETAK 14:00ETARA
Bisitatarako hitzordua eskatu.

PROTECTORA DE GIPUZKOA

AUTOGOBERNUAZ ETA TRANSFERENTZIEZ

«Lehenengo Euskadin adostu behar dugu, gure artean, eta gero hori aurrera eramane. Egia esan atentzioa deitzen dit, askotan EH Bilduk ez du autogobernua defendatzen»

EUSKARA

«Epai honek dioena da barne funtzionamenduan euskarazko testuek arazoak sortzen dituztela Estatuko botereen aurrean. Erasoei aurre egin behar diegu»

rekin nahikoa izango zela esan genuen, Estatuak horren kompetentzia baduelako. Hori azaldu genuen alderdi abertzale guztiek bat eginik, EH Bilduk eta ERCK izan ezik; besteek ikusten dugun inbasio kompetentzial hori ez ikustea harrizkoa da.

Akordioei begira, Andoni Ortuzarrek aipatu zuen EAJren botoa garestia izango dela. Zeintzuk dira baldintzak?

Emandako hitza betearazteko konpromisoa hartu beharko du Estatuko Gobernuak. Gu ez gara inoren makulua izango, gu bitartekaririk gabe goaz Madriler, Euskadirentzat eta euskal herritarrentzat onena nahi dugu. Gu goaz guk emandako hitza eta aurkeztutako programa betetzera, gure eta Euskadiren interesak defendatzera. Hori da garesti salduko duguna, adosten dugun hori betetzea eskatuko dugulako.


Nola ikusten dituzu PP eta PSOE?

Batzuek beti sartu nahi gaituzte multzo batean, EAJ Espainiako eskuin muturrarekin dagoela. Esan dugu behin baino gehiagotan: ez dugu itunik, ez dugu bitartekorik, gure hitza zuzena da, Madriler goaz Euskadiren interesak defendatzera. Euskadin Alderdi Sozialistarekin itun bat dugu udal askotan eta baita aldundietan edo Gobernuan ere; funtzionatzen ari da, eta estabilitatea ematen die gure erakundeei.

Udal eta foru hauteskundetan PPren botoa jaso zuen EAJk alkatetza batzuk eskuratzeko. Babes horrekin eroso sentitu zarete?

Legitimitate guztia daukagu. Gipuzkoaren kasuan, eserleku kopuru bera genuen: 24. PPren eskuetan zegoen nork gobernatuko. Eserlekuez gain, EAJren eta PSEren bozkak batuta gehiengo zen Gipuzkoan. Legitimitate osoarekin aurkeztu genuen Eider Mendoza.

Legebiltzarreko edo foru hauteskundeetako datuak hartu



Maialen ANDRES | FOKU

ta, euskal hautesleen aukeragustukoena EAJ eta EH Bildu dira. Nazio gintzan edo gobernatzeko eredu nolan da akordio ikusten?

EH Bilduri ere galdetu beharko zaio hori. Madrilen erraz sinatzen ditu itunak Alderdi Sozialistarekin eta, aldiz, hemen ez du horretarako gogo edo asmorik. Hemen beti eszenatoki beltz bat irudikatzen du, eta kolaboraziorako gogo gutxi.

Auzitegi Konstituzionala bete-betean sartu da EAEko udal araudian, albo batera utzi ditu euskara hutsezko udal dokumentuak. Hau konpontze-ko zein pauso eman behar dira?

Lehenengo erasoei tinko aurre egin behar zaie. Euskaldun guztiok adi egon behar dugu mehatxu larri bat delako, eta mespretxu bat euskal hiztuentzat. Azken batean, hiz-

kuntza eskubideak defendatu behar ditugu. Izan ere, epai honek dioena da barne funtzionamenduan euskarazko testuek arazoak sortzen dituztela Estatuko botereen aurrean.

Kontuz ibili behar dugu, eta erasoei aurre egin. Guk hitza eman dugu lehen lerroan egongo garela, eta uste dut batasunetik askoz hobe egingo dela.

Hainbat lan eskaintza publikotan hizkuntza eskakizunak bertan behera geratu dira; Uliaspiko fundazioaren kasuan, adibidez. Hizkuntza eskubide hauek zigilatze-ko zer egin behar da?

Guk gure legeak ditugu. Gure legeak eta hauen garapena defendatu behar ditugu. Euskal instituzioek hartutako erabakiak defendatu behar ditugu, eta hori autogobernua defendatzea da. Eta autogobernua defendatzeak eskubideak defendatzea dakar, ongizate soziala ematea. Horregatik da garrantzitsua atzera pausorik ez ematea kompetentzietan eta euskaldun guztiak babesten gaituen autogobernuan.

Legea aldatu behar da?

Legeak aldatzeko adostasuna behar da, baina dauden legeak betetzeko dira. Eta kasu hauetan guk ulertzen dugu legea ez dela betetzen ari edo ez dela ongi interpretatzen ari.

Memoria Demokratikorako Legea Espainian egon daitekeen olatu erreakzionarioaren ondorioz arriskuan ikusten duzu?

Hori jasotzen dute programan, legeak ezeztatuko dituztela. Arrisku hori badago. Lege batzuk bermatu behar ditugu, aurrerapausoak izan direlako giza eskubideetan. Oroimen politikoetan guk ez dugu onartuko inboluzio demokratikorik eta atzera pausorik. Baina inboluzio demokratikorako Voxek daukan programa larria da, eta horri aurre egingo diogu.

La Cumbre jauregiari dago-kionez, zein da EAJk izango duen jarrera Kongresuan?

Oroimen leku bilakatzearen proposamena EH Bilduk egin zuen. Nik ez dakit zein eduki proposatu dituen zehazki. Baina kontuan hartu beharko da eraikin hori Donostian dagoela eta Donostiako Udalak zeresan handia izan beharko duela, denok adostutako oroimen espazioa izateko.